

bidaiari

naiz: en bidaia aldizkaria

2022ko maiatza | 009. zenbakia | 1,50€



ISSN 2792-6176
00009
9 772792 617001

BIARNO

Gazteluen eta abadia laikoen lurraldea

SLAB CITY | LAKUETAKO TRENA LLEIDAN | PEÑA OROEL | CUSCOTIK TITICACARA | KIVU LAKUA

Badago ezagutzeko mundu bat



bidaiari
naiz:-en bidaia aldizkaria

11 ZENBAKI URTEAN, 15€

HARPIDETU ZAITEZ!

URTEKO HARPIDETZA Euskal Herrian 15€ · Ipar Euska Herrian 25€ · Estatu espainolean 18€ · Europan 50€

Bidal ezazu kupoi hau honako helbide honetara:

Bidaiari Portuetxe 23, 2. solairua 20018 Donostia (Gipuzkoa) EUSKAL HERRIA

Izena			
Abizenak			
Helbidea			
Herria	Posta Kodea	Herrialdea	
NAN	E-Posta	Telefonoa	
Kontu korrante zenbakia			
Kontuaren Jabea			

Nahiago izanez gero, mezu elektroniko bat bidal dezakezu bidaiari@astero.net helbidera, kupoian azaltzen diren datuekin edo www.naiz.eus/bidaiari web orrian sar zaitezke eta harpideteko formularioa bete dezakezu.

Urruñia distribution & services, S.L.ren produktuei eta/edo sustapenei buruzko informaziorik jaso nahi ez baduzu, markatu X bat laukian ☐

Sustapen honen barruan jasotako datu pertsonalak Herriar Berri SLU (Portuetxe 23, 2. 20018 Donostia) eta Urruñia distribution & services SLren (Kale Nagusia 2 - 4, 48001 Bilbo) datu-base batean sartuko dira. Datuak guztiz konfidentzialak dira, datu pertsonalak babesteari buruzko 1999ko abenduaren 13ko lege Organikoari jarraiki. Nolanahi ere, eskuratzeko, zuzentzeko, aurka egiteko edo ezerezteko eskubideak baliatu ahal izango dituzu. Horretarako, Herriar Berri SLU (Portuetxe 23, 2. 20018 Donostia) helbidera jo behar duzu.

bidaiari 009

2022ko maiatza

Zazpi Haizetara
aldizkariaren 158.
zenbakia litzatekeena

AZALEKO ARGAZKIA:

Xabier BAÑUELOS

ARGITARATZAILEA:

Astero.
Herriar Berri SLU.
Zazpi Haizetara
aldizkariaren lan
taldeak ekoiztua.

EDITOREA:

Eguzki
Agirrezabalaga

JATORRIZKO DISEINUA:

Grafik Sarea +
Artefakto

MAKETAZIOA:

Oiartso
Los Arcos Urbina

EGOITZA:

Portuetxe, 23 -2. A
20018 Donostia

HELBIDE ELEKTRONIKOA:

bidaiari@astero.net

TELEFONOA:

943 31 69 99
www.naiz.eus/bidaiari

LEGE GORDAILUA:

01361-2021

INPRIMATZEN DU:

Printek
Inprimategia.
Zamudio



KULTURA ETA HEZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



Gipuzkoako
Foru Aldundia



06 LAKUETAKO TRENA LLEIDAN

Lleida eta Pobla de Segur lotzen dituen tren zahar historikoan bidaiatzea lurraldearen edertasun eta ikusgarritasunean erabat murgiltzea da, lleidar Pirinioaurreko itzelezko aintziraz, basoz eta mendi malkartsuz beteriko inguruan. Konboi zaharrak –308 serieko 10817 diesel tren-makinak– Segre ibaiaren ertzeko muino batean kokaturiko hiri atsegin, bizi eta alaian du abiapuntua.



14 SLAB CITY Kaliforniako hegoaldean, “basamortuko okupak” bizi dira, karabanetan, auto zaharretan edota txaboletan. Gu ere han izan gara.



22 KIVU LAKUA Kivu aintziran izan gara, salgaiz eta pertsonaz betetako zurezko kanoen artean. Afrikako lakurik arriskutsuena omen da.



28 BIARNO Biarnoko bizkonderri zaharreko herriak zeharkatu eta Nafarroako eta Frantziako erreinuen lotura historikoarekin egin dugu topo.



36 Cuscotik Titicacara 44 Peña Oroel 50 BERTATIK BERTARA: Itsas museum 54 EGIN PLANAK! Gervasio Sanchezen “Bizitza”; FANT; Herri Urratsen “Itzulera”; Leioako Umore Azoka. 56 MUNDUAN PASIERAN Cosquer; Komogel Meskitan, “auzolana”; Berlingo Fruit Logistica Azoka; Darwinen «Bizitzaren zuhaitza»; Nakagin Capsule Tower, eraitsita; Karl Lagerfeld, Coca Cola botila batean...



POK FU LAM

Hong Kong-eko hilerria, Qingming egunean

Txinan Qingming jaia ospatu berri dute, zehazki, udaberriko ekinokzioaren ondorengo hamabosgarren egunean. Egun horretan –Garbiketa Eguna, Hilobien Eguna edo Hildakoen Eguna ere esaten zaio– hilerriak familia txinatarrez betetzen dira; hilobiak garbitzera, hildakoen alde otoitz egitera eta plater tradizionalak eskaintzera joaten dira. Horrez gain, antzinako ohiturei jarraituz, urrezko edo zilarrezko paperezko eskaintzak erretzen dituzte haien omenez.

Urtero, egun horretan, Pok Fu Lam-eko hilerriak irudi benetan zirraragarria eskaintzen du, batez ere kanposantua ikusgarria delako. Hong Kong uhartearen mendebaldeko mendi baten hegalean eraikia, «Txinako hilerri kristaua» aire zabaleko anfiteatro erraldoi baten antzekoa da, eskailerekin lotutako milaka terraza mailakaturtan banatuta.

Kanposantua 1882an eraiki zuten, Pok Fu Lam-en eta handik gertu dagoen Viktoria errepedearen artean. Lehen hilobiak inguru garaietan eraiki ziren, baina ondoren, txikiegi gelditu zenez, maldan behera zabaldu zen, Viktoria errepiderantz. Gaur egun, hilerriaren zati handi bat errepide horren beste aldean dago.

Hala ere, espazio faltak hildakoak gogoratzeko modu berritzaileak sortzea eragin du. Eta Gobernuak «ehorzketa berdeak» sustatzen ari da, errausketaren ondoren eraikin berezietan hilku-txak biltze gaituta.

Zenbaitek hildakoak oroitzeko doako zerbitzu bat ere diseinatu dute Interneten, doluminak edozein unetan eta edonondik adierazteko aukera eskaintzen duena. Errealitate birtuala hortxe dago, fisikoki hilerrietatik oso urrun baina, aldi berean, oso hurbil. Ehorzketa non egin aukeratu eta, ondoren, guztien eskura egongo da, etxetik irten gabe bertaratzeko, bisitatzeko, inguruan pasieran ibiltzeko... PETER PARKS/AFP



LAKUEN TRENA PIRINIOAURREAN

Lleida eta Pobla de Segur artean





Lleida eta Pobla de Segur lotzen dituen tren zahar historiko honetan bidaiatzea lurraldearen edertasun eta ikusgarritasunean erabat murgiltzea da, lleidar Pirinioaurreko itzelezko aintziraz, basoz eta mendi malkartsuz beteriko inguruan.

Testua eta argazkiak: **Sergi REBOREDO**

Lleida da abiapuntua. 308 serieko 10817 diesel tren-makina zaharra, 1968an Babcock Wilcox-ek eraikia, da bagoiak arrastatzen dituen. “Yeyé” ezizenez ezagutzen zen, kulunka-mugimendu bereizgarria zuelako, gaur egun indarrean jarraitzen duen bereizgarria. 1999. urtera arte egon zen martxan karga-bagoiak garraiatuz, eta 2001ean berreskuratu zen. Bere ahizpa bikia (10820) harekin lotuta doa, malda handietan potentzia handitzeko. Konboi zaharrak Lleidan hasten du bere ibilbidea, Segre ibaiaren ertzeko muino batean kokaturiko hiri atsegin, bizi eta alai. Hiri inguruko lautadan fruta-zelai zabalak dira nagusi. Eta muino baten gainean, Seu Vellako multzo arkitektonikoa, Lleidako katedralik zaharrena, zutitzen da harro eta begirale.

Gure tren ahaztezina hirigunean dagoen Lleidako geltokitik abiatzen da; hirigune historikoaren iparraldean dago, Segre ibaitik ez oso urrun. Txilibitu baten soinu metalikoak iragartzen du goizeko 10:40an gure irteera. Tren-makinatik datorren ke grisaxkako hodei zabal batek estaltzen du geltokia. Lehen zatia Segre ibaiaren albotik doa, eta fruta-arbolak ikus ditzakegu alde banatan. Trenak aurrera egiten duen bitartean, pixkanaka-pixkanaka, atzean eta gelditu gabe uzten ditu Vilanova de la Barca, Vallfogona de Balaguer, Tèrmens eta Alcoletge.





Tren-makinak garaiko bost bagoi arrastatzen ditu, 6000 seriekoak, urrun geratu den denbora batekiko nostalgia, sentsazioak eta perspektibak sortzen dituztenak. Kafetegi-bagoi batek eta posta-furgoi batek osatzen dute konboia. Bagoi horiek 50eko hamarkadan eraiki ziren Espainian, eta botila-berde kolorez margotuta eta horiz errotulatuta daude. Barnealdeak bereizitako bi klase ditu. Horietako batean, konpartimentu itxiak daude, garai hartan eraiki ziren bezala: egurrez forratuak eta elkarren parean dauden eskaizko lau eserlekuko bi ilara dituztela. Bestea 80ko hamarkadan berritu zuten, eta departamentu itxiak kendu eta diseinu modernoko 56 eserleku zabal eta eroso jarri zituzten.

BALAGUER, LEHEN GELTOKIA Goizeko hamaiketan sartu da trenea Balaguerreko geltokian, ibilbidearen zati hau soilik egitea erabaki duten turistak jasotzeko.

La Noguera hiriburuak (hau ere Segrearen ertzean kokatua) bere auzo zahar ederra dauka. Arkupeak dituen plaza handi bat dago bertan, zeinean astero 800 urteko historia duen azoka ezaguna egiten den. Interesgarriak dira, halaber, Santa Mariako kolegiata, kanpandorre altu bat duena eta Sant Domenec, klaustro xume bat duena.

Bost minutu geroago, berriz txistua aditu eta trenea martxan jarri da. Eder-tasun harrigarria duten 58 zubi eta 40 tunel ditugu aurretik.

Lleidar Pirinioaurreko itzelezko aintziraz, basoz eta mendi malkartsuz beteriko inguruan gozatzeko aukera eskaintzen du Lleida eta Poble de Segur lotzen dituen tren zahar historikoak.

**Gure tren
ahaztezina
hirigunean dagoen
Lleidako geltokitik
abiatzen da;
hirigune
historikoaren
iparraldean dago,
Segre ibaitik ez oso
urrun. Txilibitu
baten soinu
metalikoak
iragartzen du
goizeko 10:40an
gure irteera**

Lakuen Trena 2007. urtetik dago martxan, iberiar zabalera zuen eta 89 kilometroko burdinbide bakarra zuen tren linearen azpiegitura aprobetxatuz. Trenbide hark Lleida eta La Pobla de Segur lotzen zituen, eta 1951n sortu zen, nahiz eta hasiera batean Okzitaniako Saint Gironsera (Frantzia) iritsi nahi zuen. 2005az geroztik, linea hori Kataluniako Generalitatearen Trenbideek kudeatzen dute.

SEGREKO LAUTADA ATZEAN UTZITA Balaguerretik La Pobla de Segurreraino doan tartean, ezinezkoa da begirada leihatilatik apartatzea. Tarterik ederrena da. Segreko lautada atzean utzi, eta Montsec-en sartuko gara. Bertan kareharrizko mendikatea dago eta Mont-rebei eta Terradets-eko haitzarte ikusgarriak, ur bareko dozenaka aintzirak osatzen dituzten xafla urdinez inguratuta. Gure trena horietako lauren artetik sigi-sagan doa. Eskuinaldeko eserlekuetan estrategikoki eserita joatea komeni da, bista onenak izateko.

Lehenbizi, Sant Llorenç de Mongai urtegiaren ertzetik pasatuko gara. Zume negartien berdea andere-mahatsen gorriarekin uztartu eta ibilbideko paisaia erromantikoenetako bat sortzen da. Kayak, eskalada eta mendi-ibiliak egiteko leku aproposa da. Gainera, lezkadi ugariei eta urmaila konstanteari esker, urteko zati handi batean uretako hegazti espezie asko hartzen ditu.

Hurrengo urtegia Camarasakoa da. 20 kilometroko hedadura eta 624 hektareako azalera du. Pirinioaurrearen sarrerako atea da. Harkaitzez inguratutako presa 1920an eraiki zuten, Bartzelonako metropoli-eremu osoa argiztatzeko.

Gaur egun zerbitzua ematen eta energia garbia sortzen jarraitzen du. Zenaibait kilometro egin ondoren, Terradets-eko urtegiara iritsiko gara. Bideko ederrenetako bat da Terradets, ibaiertzeko basoz inguratua. Tremp haitzartetik udalerrri horretako arroko lautadarainoko tartea hartzen du. Azkenik, trena sigi-sagan doa Sant Antoni aintziraren ertzetatik. Kataluniako ur gezako eremu handiena hartzen du lakuak, 972 hektarea eta 86 metroko sakonerarekin.

Gozatua da inguru hau bereziki udaberrian bisitatzea, dena berdez jantzten denean, eta laku eta urtegiak urez gainezka daudenean, piriniotar mendietako elurra urtzearen ondorioz.

LA POBLA DE SEGUR, IBILBIDEAREN AMAIERA Lleidatik abiatu garenetik ia bi ordura, 12:35ean, trena La Pobla de Segur-eko geltokian sartu da. Ibilbidearen amaierara heldu gara. Orain, tren berean itzuli nahi dute nek 17:00ak arte itxaron beharko dute itzulerako bidaia egiteko. Denbora tarte ederra, inguruko gastronomia tipikoa dastatu ahal izateko –esaterako, coca de recapte delakoa, tipula, tomatea eta piper erreak dituen talo modukoa, sardinekin, butifarrarekin edo hirugiharrarekin–; Pobla de Segurreko sekretu modernistez gozatzeko, Salàs de Pallars-eko Museo Dendak bisitatzeko; Vall Fosca-ra joan eta Kataluniako produkzio hidroelektrikoaren hastapenak ezagutzeko; edota Tremp, Isona eta Llordàko gazteluaren berezitasunak deskubritzeko. Iraileko larunbatetan Trena-

ren Merkatua egiten dute geltokiko plazan bertan; hau ere artisau- eta nekazaritza-produktuak dastatzeko toki aparta.

TERRADETS-EKO URTEGIA Pobl de Segurretik 30 kilometro hegoaldera joanda Terradets-eko urtegia dago, Montsec mendilerroak babestuta. Toki ezin hobea, bertan aterpetu eta hortik Pallars Jussà eskualde ederra esploratzeko.

Urtegiaren ertzetik hiru kilometro pasatxoko bidea dago xendazaleentzat atonduta, eta ibaiertzeko basoan eta aintzira ondoko kanaberadietan biltzen den fauna eta flora askotarikoekin kontaktua izateko aukera aparta eskaintzen du. Begiratoki bikainak daude bertaratzen diren uretako hegaztiak eta migratzaileak eta turistarekin uzkur diren igarabak ikusteko, haiek gu ikusi gabe.

Lehen begiratuan aintzira naturala dirudien arren, 1935ean eraiki zuten, azpiegitura hidroelektriko bat jasotzeko. Bertako urek Sant Miguel de Cellers monasterioa irentsi zuten; antza denez, 1170ean Pallars Jussà-ko konde-kondesak fundaturiko monasterioa.

GENTO LAKUKO TELEFERIKOA L'Estany Gento-ko teleferikoa, Vall Fosca-ko teleferikoa ere deitua, Aigüestortes Parke Nazionalerako eta San Maurizio aintzirarako sarrera da. Hamalau minutuan 450 metroko desnibela gainditzen da, 2.200 metroko kotara igoz; hortik makina bat txango egin daitezke paraje ikusgarri hau osatzen duten 32 lakuak ikusteko.

Igogailu hori Kataluniako Indar Elektriakoak S.A.k (FECSA) eraiki zuen 1981ean, aintzirara sartzeko aurretik zeuden bi funikular eta bide estuko trenbidea ordeztzeko, eta, hartara, pertsonak, ibilgailuak eta eraikuntzarako materialak Sallente-Estany-ko zentral hidroelektriko itzulgarriaren punturik gorenera eramateko.

Gailurrean, Gento lakuaren oinetan, 1911n eraikitako trenbide zaharraren errailetan barrena doan bidexka hasten da. Sei kilometro inguruko bidea da, birgaitua eta Kataluniako bide berde politenetako bat dena. Ibilbidea tunelez beteta dago, eta oraindik ikusgai daude Capdellako zentral hidroelektrikora iristen ziren bideen hondarrak.

Zidorra ia laua da eta hiru bat orduan egin daiteke. Pirinioak Kantauri itsasotik Mediterraneo itsasoraino zeharkatzen dituen GR11 ibilbidearen zati bat da, eta, zehazki, Vall Fosca, Espot eta Vall de Boí lotzen ditu Riquièr haranean barrena.

Capdellara itzultzean, interesgarria da Zentral Hidroelektrikoaren Museoa bisitatzea, Espainiako lehena. Haren sorrera, historia eta Kataluniako elektrifikazio-prozesuaren berri jakingo dugu bertan, baita une hartako gizartean izan zuen eragina ere. Kontuan hartu behar da zentralaren eraikuntzan 3.000 pertsona baino gehiago aritu zirela, herrialdeko hainbat tokitatik iritsiak. Lan faraonikoa, tunel eta galerien bidez Pirinioetako 15 laku lotzen zituen, gero 3,3 metro kubiko ur segundoko erortzen uzteko, 840 metroko altuerako desnibel kanalizatuan.





GOD IS

LOVE

YOU ARE LOVED BY GOD

GODS HOLY BIBLE

FOR GOD LOVED THE WORLD THAT HE GAVE HIS ONLY BEGOTTEN SON THAT WHO SOEVER BELIEVES IN HIM SHOULD NOT PERISH BUT HAVE ETERNAL LIFE



THE LORDS PRAYER

ACTS 2:38

SAY JESUS A SINNER COME UPON YOUR BODY AND MY HEART

Area CLOSED Due to RAIN

KEEP OUT

Slab City, basamortuko okupak





Kaliforniako hegoaldean, Mexikotik kilometro gutxira eta elkarrengandik oso hurbil, ikusteko moduko hiru leku daude: Big Morongo erreserba ornitologikoa, Salton Sea, eta Slab City. Lehenengoan, txoriak izan genituen lagun. Bigarrenean, gizakiak egindako kaltea etsai, eta hirugarrenean, koktelaren gazi-gozoak dastatzeko eta bestelako bizimodua ezagutzeko parada izan genuen bidaiariok.

Testua eta argazkiak **Juan Luis MUGERTZA**

Los Angeles atzean utzi, eta Yucca Valley-ra joan gara. Trafiko eta bero oso handiak izan ditugu. Autoak 92 Fahrenheit gradu (34°C) markatzen du. Aukeratutako motelak igerilekua du, eta ondo aprobatxatu dugu Big Morongo Canyon Preserve-ra joan aurretik, ordu berroetan plisti-plasta ibiltzeko. Arratsaldeko saioan, ez dugu behar beste denbora izan Josua Tree National Park-eko bazter batean dagoen eta ornitologoek artean oso ezaguna den erreserba txiki hori arakatzeko. Guztira, 48 espezie berri ikusi ditugu; usapal hegazburua (Zenaida asiatica), fainopepla (Phainopepla nitens), musuhoria (Auriparus flaviceps) eta polioptila buztanbeltza (Polioptila melanura), besteak beste.

Itxura oso ona hartu diogu lekuari, jakinda hegazti berriak aurkitzea gero eta zailagoa izango dela. Hurrengo egunean, txorizale amerikar talde batekin izan gara Big Morongotik 200 metrora dagoen Covington izeneko



Erreportajea zabaltzen, Leonard Knight-ek egindako “Salvation Mountain” artelana. Tontorrean gurutze handi bat du, eta azpian «God is love» (Jainkoa maitasuna da) idatzita. Slab City-ko “slabber”-ak karabanetan, auto zaharretan eta txaboletan bizi dira, gizarte konbentzionaletik kanpo eta, esaten dutenez, askatasuna da komunitatearen ezaugarri nagusia.



parke txiki batean, eta oso espezie potoloa ikusi dugu: euli-txori gorria (*Pyrocephalus rubinus*). Asmoa egun-pasa egitea izan da, baina beroak eta txoriak ikusteko ordu txarrek motelera bueltatzera behartu gaituzte. Dena den, pozik.

SALTON SEA LAKURA Hurrengo egunean, ordubete eta laurden egin dugu autoan Arizona estatutik oso hurbil dagoen Kaliforniako lakurik handienera, Salton Sea-ra (Salton itsasoa), iristeko, eta oso gustura izan gara, aurreko egunean baino bero handiagoa egin arren: 101 Fahrenheit gradu (38°C). Gezurra dirudi horrelako leku batean txoririk egotea, baina asko ikusi dugu: txori zezen amerikarra (*Botaurus lentiginosus*), zata txikia (*Chordeiles acutipennis*)...

Dena den, ezin utzi aipatu gabe gizakiak laku honetan egindako kaltea. Izan ere, Ameriketako Estatu Batuetako hondamendi ekologikorik handiena bertan egin dute. XX. mendearen hasieran, inguruko ur-kanal batean ingeniari-tza-akats batek eragindako uholdeak sortu zuen ur-masa erraldoi hau. Harrezkeroztik, ondoko Coachella eta Imperial bailaretako nekazaritza-ustategiek hamarkada askotan isuritako gazitasun handiko urek lur barneko itsaso kirasdun handia bihurtu du lakua.

Hasiera batean, laku bazterretan hildako arrainek usaina zabaldu zuten, eta euliak agertzen hasi ziren. Gero, arrantza egitera edota patxada ederrean bizitzera etorritako jendeak, poliki-poliki, alde egin zuen. Hori dela eta, egun, lakuaren inguruan egoera txarrean dauden etxe asko utzita ikusten dira, eta horrelako batean bizi da Jesus Sanchez.

Dagoeneko 15 urte pasatu dira, baina oso ondo gogoratzen du etxea saldu-takoak zer esan zion: «Lasai egon. Egoera honek inoiz hobera egingo du». Hemen bizi diren gehienak hispanoak dira, eta nekazaritzan dihardute. Etsipenak jo aurretik, egoerari eustea dute irtenbide bakarra. Adituek ahalginak egin dituzte agintariekin lakuaren egoera hobera ekartzeko. Haien ustez, horrek lagunduko luke nahiko pobrea den eskualde honetako bizilagunak hobeto bizitzen, oraindik hegaztientzat eta hegaztizaleentzat paradisia den lakua ez lehortzen eta, bide batez, migrazio-sasoian paduetara datozen ehunka espezieak babesten, baina...

DENAEZ DA DENA BIRDING Salto Sea eta inguruko parajeak arakatzeko Westmorland herria izan dugu lotarako leku, eta hemen ere, hiru egunez, txoriak ikusten aritu gara. Halarik ere, Kalifornian egindako egunetan dena birding-a ez izateko, arratsalde bat erabili dugu Sonora basamortuaren erdian dagoen Slab City ikusteko (ordubete pasatxo autoz). Hori bai, aldeztu aurretik Americas Best Value moteleko neskatoari galdetu diogu ea zer topatuko dugun horrenbesteko erreparoa ematen duen leku horretan.

Berak ere guk besteko erreparoa erakutsi badu, bete-betea asmatu dugu gerra-beteranoek, hippyek, eskaleek, toxikomanoek, erretiratuek eta beselakoek okupatutako lurralde autogestionatu hau bisitatzen.

Estatu Batuetako indar armatuek erabili zuten leku hau Bigarren Mundu Gerran base militar bat eraikitzeke eta praktikak egiteke. Armadak 1956an

**Karabanetan, auto
zaharretan edota
txaboletan bizitzea
aukeratu dutenei
“slabber” esaten
diete. Gehienak
bizitzeko
dirulaguntza
nahikorik ez
dutenak edota
bizitzeko leku
alternatibo bat
nahi dutenak dira**





SLAB CITY BASAMORTUKO OKUPAK

alde egin zuen, eta egindako eraikinak suntsitu zituzten, hormigoizko zimenduak zutik utzi arren. Hippyen mugimenduaren sasoia zen ordukoa, eta bertan kanpatzera etorritako jende askok zimendu horiek baliatu zituen bizitzeko, bestelako bizimodu bat egiteko. Ingeleseztan zimendua “slab” esaten da. Hortik dator Slab City.

“SLABBER”-EN TOPALEKU Negu gorrian bertan ehunka lagun bizi badira ere, udan horietako asko iparraldera joaten dira, beroa jasanezina baita. Karabanetan, auto zaharretan edota txaboletan bizitzea aukeratu dutenei “slabber” esaten diete, eta, esan bezala, era guztietako jendea topa daiteke, baina gehienak bizitzeko dirulaguntza nahikorik ez dutenak edota bizitzeko leku alternatibo bat nahi dutenak dira. Leku honetan ez dago edateko urik, ez argindarrik, ez estolderiarik, ezta edozein herri edo hirik izan dezakeen ezer ere. Alabaina, autokarabana guztiek eguzki-panelak dituzte, eta erosketak egiteko Niland herrixkara joaten dira, hamabost bat kilometrora.

Legerik gabeko eremua dela esatea gehiegizkoa bada ere, legez kanpoko substantzien kontsumoa ez omen dago gaizki ikusia, nahiz eta batzuetan bertako polizia gora eta behera patruilatzen ikusten den. Gizarte konbentzionaletik kanpo Sonorako basamortuan bizitzearen eta zabor birziklatuaren aldeko hautua egin duten bertako bizilagunek bestelako funtzionamendua dute. Komunitate honen ezaugarri nagusia askatasuna da. Horrelaxe esan digu, behintzat, Vietnamgo gerran izandako Jamesek, bere karabanaren atarian garagardo bana hartzen ari ginela: «Amerikako azken leku aske bakarra da hau».

“SALVATION MOUNTAIN” Leonard Knight-ek egin zuen oso ezagun toki hau, “Salvation Mountain” izeneko artelan bitxiaren egileak. 1980an hasi zen mendixka hau egiten, lastoz eta adobez, eta kolorez eta jainkoaren aldeko mezuz beterik dago. Tontorrean gurutze handi bat du, eta azpian «God is love» (Jainkoa maitasuna da) idatzita.

Leonard 2014an hil zen adinekoen egoitza batean, bere obra bukatu gabe, baina artista askok ematen dio segida hark hasitako bideari. Menditik kilometro erdi ingurura, hondakin eta traste zaharrekin egindako hainbat artelan bildu dituzte East Jesus Art Garden izeneko aire libreko museo nahiko original batean. Toki hau Charlie Russell-ek egin zuen 2007an.

Dirudienetz, bizitzaz, lanaz, eta kontsumismoaz nazkaturik, dena bertan behera uztea erabaki zuen, eta, zuen guztia hartuta, Slab City-ra joan zen bizitzera. Eramandako objektu guztiak lur-eremuan zabaldu zituen, eta orduantxe ekin zion bere arte experimentalari: bi auto, hegazkin baten zatiak, telebistak... Hori eginda, Charlie East Jesus museo surrealista egitea lortu zuen, eta horrek eragin zuen, egun, artista askok ekimen horri indarra ematea.

Jamesek aipatu digu 2.000 pertsona baino gehiago aritu direla proiektuan. Guk, bitartean, bestelako gizarte irudikatze paradatu dugu, munduko nazio kontsumistarik handieneko kontsumismoari bizkarra eman dioten basamortuko okupen Slab City-n.



Kivu lakua

Egunerokotasuna arrisku bihurtuta



Testua: Ane IPARRAGIRRE Argazkiak: Moses SAWASAWA



Afrikako kostaldeko beste laku eta ibai askok bezala, Kivu aintzirak salgaiz eta pertsonaz betetako zurezko kanoen irudi ikusgarria eskaintzen du. Ekaitzei, eshorei – tornadoak eragiten dituzten haize bortitzak – eta txalupa gainkargatuen kaskoak kupidarik gabe kolpatzen dituzten olatu zakarrei aurre egiten diete egunero ehunka merkatarik eta biztanlek. Batzuetan helmugara iristea lortzen dute, baina beste batzuetan, gehiegitan, hondoratzeek itsasaldia zapuzten dute eta bidaia tragedia bihurtu.









E

gunsentian eta ilunsentian jendetza zalapartatsua irudia etengabe errepikatzen da, adibidez, Gomako kostaldean, Kongoko Errepublikan Demokratikoan, zehazki Kivu lakua iparraldeko eta hegoaldeko ertzetan. Egurrezko ontzietan pilatutako banana- eta manioka-zakuen artean ahokatuta, bidaariek portu onera irits daitezzen erregutzen dute zeruari so. Jakin ongi dakite bidaia ez dela segurua eta hondoratzea gerta litekeela, askotan gertatzen den bezala. Alabaina, ez omen dute beste aukerarik.

«Dena ondo atera da», dio pozarren bidaarietako batek, Jeannine Mutanjik, Gomako Kituku portuan lehorreratu denean. Buzi-Bulenga uhartean ontziratu zen. «Igandean –kontatu du– kanoa irauli egin zen, eta bi lagun hil ziren».

Txalupak iristen diren ertzetik gertu, Bukavun duen bulego txikian eserita dago Dido Balume «komisarioa». Gogorarazi du zenbait segurtasun-neurri eta arau batzuk ez direla errespetatzen. Adibidez, «egurrezko ontziek ezin dute gauez nabigatu, argirik eta seinalerik ez dutelako» eta «salbamendu-jakak eramatea derrigorrezkoa da».

Dena dela, inork ez du jaka laranjarik janzen. Oso garestia da. «Jaka batek 25 dolar balio du. Nik 20 eskatu nituen», esan du Mampendano Fandiri 38 urteko Idjwiko kanoa-gidari batek. «Baina ezin zaio jaken prezioa garraio-txartelarenari gehitu, jendeak ez baitu gehiago ordaindu nahi». Eta ordutegi-arauak ere ezin omen dituzte bete: «22:00etatik aurrera nabigatzen dugu, karga 06:00etan entregatu eta probintziako hiriburuetako merkatuak fruta, landare, oilasko, indioilar, egur-ikatz eta beste merkantziaz garaiz hornitu ahal izateko».

Zeharbideek 3.000 eta 6.000 franko kongoar arteko kostua dute pertsona bakoitzeko, ibilbidearen arabera, eta merkantzia pisuaren eta tamainaren arabera kobratzen da, 1.000 eta 3.000 franko artean. «Ohiko itsasontzia baino merkeagoa da baina, dena den, ez dago itsasontzirik; beraz, ez dugu aukerarik», azaldu du 44 urteko Jean Hazihishek. Kalehetik iritsi zen Gomara, non hondoratze batek ehun hildako eragin zituen 2019ko apirilean.

Nolanahi ere, Kivu aintzira, 2.700 kilometro karratuko hedadura eta 500 metroko sakonerarekin, planetako lakurik arriskutsuenetakoa da, baina ez kontrolik gabeko zeharkaldi horiengatik, bai zik eta barnean, itsaspeko geruzetan, 60 milioi metro kubiko metano eta 300 karbono dioxido baino gehiago aurkitu dituztelako, eta horiek askatzeak izugarritzko hondamendia eragingo lukeelako. Sumendien erupzioek –Nyiragongoko azkenak, esaterako–, lur-jausiek eta lurrikarek hondamen ikaragarria eragin lezakete berandu baino lehen.



BIARNO

Erregetzen, gazteluen eta abadia laikoen lurraldea







Biarnoko bizkonderri zaharra etxaldeekin zipriztindutako muino leunen segida da, Pirinioetako profil malkartsuetara heltzean erabat puskatzen dena. Bertako herriak zeharkatzea Nafarroako eta Frantziako erreinuen lotura historikoarekin tupustean topo egitea da. Lurrotako idiosinkrasia bereziak Errenazimendu garaiko erregetzen, mugako gazteluen eta kudeaketa laikoko abadien oihartzunak uztartzen ditu, Biarnoko eta mugakide duen Zuberoaren berezitasun dena.

Testua eta Argzkiak: **Xabier BAÑUELOS**

Egunsentia da Biarnon. Eguzkia, oraindik ere nagi, ekialdetik bere izpiak botatzen hasi da, Pirinioetako gailurrak argituz, betiere, altuera ordena zorrozki betez. Harrizko dragoi isil baten esnatzea dirudi, edo, agian, Aragoiko lurak gau eta egun iparraldetik begiztatzen dituen golem armada baten guardia aldaketa. Izan ere, Pauetik, Pirinioetako Bulebarraren barandatik zehazki, hegoaldera begiratzerakoan, Biarnoko lautada bat-batean desagertzen da mendi izugarritz osatutako harresi menderaezin bati bide emateko. Landetatik Pauera bidean lautadak amaiezina zirudien, baina baranda honetatik argi ikusten da bere amaiera malkartsua behin Pirinioen magalera iristean. Bi betizu gorrixken herrialdearen arima erdibitua da: lautadaren arima lasaia –Pauko eta Oloroeko uhaitzek bustitako labore lurak eta berdetasuna– eta mendien arnas basatia, Auñamendi, Pic Palas eta Midi d’Ossau bezalako gailur elurtuetatik Pirinioen oinetako bailaretara jaisten dena. Bi arimok bat egiten dute Biarnon, tradizioak uztartuz eta Hegoaldeko Frantziako lurretan nortasun bereziko eskualdea osatuz.





Gaskonia historikoaren zati piriniotar-mendebaldarrean gaude, oc-eko hizkuntza zaharraren lur atlantikoetan. Ekialdera Nafarroa Beherearekin, eta, batez ere, Zuberoarekin, egiten du muga Biarnok. Ondo dakigun bezala, Zuberoako lurretatik Euskal Herri osora zabaltzen dira sorterriarekiko maitasun eta nostalgia bertso aski ezagunak: «Agur Xiberua, bazter güzietako xokhorik eijerrena». Bada, Biarnon sentimendu bera aurkituko dugu, oraingoan okzitanieraz eta Los dé l'Ouzom taldearen ahotsen: «Adishatz, qu'ei a partir!, tornarei, un beth matin, amic! Qu'ei açi qui cau fenir, shens nat brut, shens nat chepic» (Agur, abiatu beharra daukat! Baina goiz on batean itzuliko naiz, lagun! Hemen bukatu behar baitugu bidea, estutasun gabe, bakean). Eta ez da harritzekoa, Biarnon guztia, edo ia guztia, etxeko egiten baitzaigu, oraindik ere Euskal Herriko lurretan izango bagina bezala. Eta hizkuntzarekin ere berdina gertatzen da. Iparraldean gaskoiarentzako lekua baldin badago, adibidez Baionan bertan, administratiboki Biarnon kokatutako zenbait herritan euskararentzat lekua ere baitago, Lixozen eta Eskiulan kasu. Baina gaurkoan begirada Biarno garbiki okzitaniarrean jarriko dugu, historiaz eta edertasunez betetako eskualdeko herri ugari ezagutzeko asmoa baitugu.

IPARRALDETIK PAUERA Biarnoko landazabalaren espiritu arina lagun abiatuko dugu bidea. Arina, hori bai, soilik paisaiari dagokionez, iragan gatazkatsu baten berri emango diguten herri eta gotorleku ugari baititugu

Aurreko orrialdeetan, Aren-eko gazteluaren harresia eta eliza, eta Orthezeko Zubi Zaharraren dorrea. Lerron ondoan, Pirinioetako panoramika, Montaner herriko gaztelu zirkular harrigarria, Saint-Michel elizaren barrualdea eta Paueko funikularra. Hurrengo orrialdeetan, Morlanneko landa-etxe bat, Navailles-Angos herriko harrizko fatxada eta Oloroe-Donamariako kale bat.



zain. Lehen froga Bellocq herriko gazteluaren itxura fantasmagorikoan eta bertako dorre kuboide eta zilindrikoetan aurkitu dugu. XIII. mendean eraikitako gaztelua, 1620an erre zuten Luis XIII.aren aginduz, protestanteen eskuetan eror ez zedin. Ortheze herri ederrak ere bi dorrerekin egin digu ongi etorria. Lehenak Zubi Zaharraren igarobidea gordetzen du erdiko zubi-brankan altxatuta. Bigarrena Moncada dorre pentagonala da, eta XII. mendetik XIV. mendera bitartean herria babesten zuen gazteluaren aztarna gutxietakoa da bertako lubanarroaren eta harresiaren hondakinen batekin. Frantziako Iraultza eta gero, gaztelua guztiz eraitsi zuten. Bizkonderriko hiriburu historiko izandakoak beste altxor txiki batzuk ere eskaintzen dizkigu, adibidez Gramont Hotela (XVII. mendea), Joana III.a Nafarroakoa (Juana de Albret) erregearen egoitza izandakoa eta XVI. mendeko etxe burges baten adibide bikaina, eta 18 metroko bobeda ikusgarria duen Saint-Pierre eliza (XII. eta XIV. mendeen artean eraikia).

MORLANNE HERRIA Sault-de-Navailles herrira bidean jarraitu dugu, XIII. mendeko bertako gazteluaren aurrietara igo asmoz; luzaroan Akitaniako dukearen eta Biarnoko bizkondearen artean ezbaian izan zen kokagunearen gaineko kontrola. Geldialdi laburra egin eta Erdi Aroko Morlanne herrirantz jarraitu dugu bidean; bertan zain ditugu Carrère du Château ederra, gotiko berantiarren adibide bikaina den Saint-Laurent gotortutako eliza, La Tour abadia laiko zaharra eta harriz eta adreiluz egindako XIV. mendeko gaztelua. Ritter mediebalista adituak 1971n zaharberritu zuen gaztelua eta dorre nagusia, harresia eta lubanarro bikoitza ditu, baita gerora gehitutako lorategi frantziar soil bat ere. Ibilbidea jarraitu eta, hurrenez hurren, Mascaraàs-Haron herriko eliza eta abadia laikoa –gaur egun jauregi bihurtua–, Montaner herriko gaztelu zirkular harrigarria eta Saint-Michel eliza, Navailles-Angos herriko château eraberritua eta errekarritz egindako etxe bitxiak, eta Aren eta bertako château ikusgarriak eta eliza erromanikoak osatutako Erdi Aroko gunexarmagarria bisitatu ditugu.

Oloroe-Donamariara heldutakoan Santa Cruz auzora jo dugu. Erdi Aroko aireak arnastu ditugu katedral bikaina liluraz begiztatu bitartean; tenplu erromaniko gisa jaio bazen ere, gotiko bezala handitu zuten, eta gizateriaren ondare ere bada egun Donejakue bideko geldialdi gisa. Bidean da Nabarregose ere, gaur egun Estatu frantsesa denaren lurretan eraikitako lehendabiziko bastida. Toscanako Lucca hirikoak bezalako defentsa harresituak Enrike III.a Nafarroakoa erregearen aginduz eraiki zituzten.

Salbaterra Bearnora heldu gara jarraian; bertan, Montreal dorrea Oloroeko uhaitzeko uren gainean altxatzen da harro, eta, Glère uhartera bidean, arku zorrotzeko Legendaren Zubi ikusgarriak zeharkatzen ditu ibaiaren urak. Hirigunean, ezpata eta dagazko kaleen artean, harresiaren hondakinek San Andres elizara, egun udaletxea hartzen duen château ederrera eta bizkondearen gaztelura eramaten gaituzte. Eta hegoaldera bidean jarri aurretik, beti da ideia ona ipuin batean paseoan ibili eta gero Salieseko bainuetxean geldialdia egin eta gatzeko bainu bat hartzea.

PAUETIK PIRINIOETARA Azkenean heldu gara Pauera, 1464tik Biarnoko hiriburu. Bertako gazteluan erditu zen Enrike III.a Nafarroakoaz Joana III.a Nafarroakoa; Frantziako koroa zain zuen Le bon roi Henri txi-

kiak, eta, noski, ez zuen zalantzarik egin Parisek merezi zuen meza ordaintzeko. Parez pare, zutik da oraindik ere Luis XIII.a Frantziakoak (Luis II.a Nafarroakoa) aitaren omenez altxatu zuen Nafarroako Parlamentuaren eraikina. Paue hiri txikia, lasaia, atsegina da, Place Royale enparantza bihotz duen alde zahar trinkoa duena. Bertatik Les Sentiers du Roy parkeko begiratokira joan daiteke, hau da, funikular zaharkitu, mantso eta zoragarria irteten den lekura. Funikularren ibilbideak eta hiriak berak txoko eder ugari eskaintzen dituzte.

SULLY JAUREGIA Rue du Château kalean Sully jauregia aurkituko dugu, baita bertako txakur itxurako aldaba jo ere zorte onaren bila. Rue M. Joffre kalean, berriz, jauregitxo eta luxuzko etxeen ondotik ibiliko gara Clemenceau plazako terrazetara eta George V.aren plazako noriara heldu bitartean. Jarraian, Rue de Cordeliers zeharkatuko dugu Parentoy igarobidera heldu arte; bertatik jaitsiko gara Hedas auzora, hiriaren lehendabizikoetakoa izandako artisauen auzunea. Luzaroan ahanzturan izan eta gero, eraberritu egin dute eta egun jatetxez betetako auzo erakargarria da. Dagoeneko gertu-gertu ditugun Pirinioetara bitarteko bidearekin jarraitzeko ordua iritsi zaigu, baina bisitatzeko moduko beste leku ugari ere eskaintzen ditu Pauek: Rue Tran, Askatasunaren eta 7 Kantoiaren plazak, Taylor eta Serviez oinezkoentzako kaleak, San Martin eliza...

Berde amaigabeen artean heldu gara Lestelle-Bétharram udalerrira. Notre Dame kaperaren barroko harrigarri eta joriaz gozatzeko egin dugu geldialdia, baita Mixel Garikoitz santu baxenabartarraren kapera bisitatzeko ere. Mendiak jada gertu-gertu ditugula, mendebalderantz jo dugu. Ingurua gero eta malkartsuagoa bilakatzen hasi da, eta argiaren eta gerizaren arteko mugak lausotzen. Goi mendietara hurbiltzen ari gara, eta harkaitzen edertasun basatiak zerua nola atzamarkatzen duen ikusten hasi gara. Ossau glaziar haranaren sakontasunetan murgiltzen ari gara. Europako tren garaientako bat hartzeko irrikak ere ekarri gaitu lurrotara: le Petit train d'Artoise.

Artoiseko presa eraiki zuten langileak garraiatzeko eraiki zuten eta gaur bertigoari aurre egiten dion erakargarri turistiko bihurtu da: 2.000 metroko altuerara igotzen da amildegiz inguratutako 10 kilometroko ibilbidean barna. Behin behera itzuli ondoren, Marie-Blanc mendi-lepora igo gara, Aspe haranera heltzeko. Paue-Canfranc trenbide zaharra jarraitzen duten herrixkak ditugu zain: Azkota, Akoz, Zeta-Igun, Borza, Urdos... Bata bestea baino ederragoa begitandu zaigu, arbel beltzeko bi isuriko teilatu izugarri inklinatuekin.

Portaletako gotorleku ikusgarrian amaitu dugu bidea; XIX. mendean muga zaintzeko kokaleku pentsaezin batean eraikitako gotorleku menderaezina da. Mendian bertan integratuta dago eta bere barrunbeak presondegi ere izan ziren Bigarren Mundu Gerran; Vichyko gobernuaren garaian disidenteak espetxeratzeko erabili zuten. Eta historiaren kontuak nola diren, behin gerra amaituta, Petain mariskala bera ere bertan izan zen gatibu. Kontuak kontu, Pirinioetako iparraldeko hegalean iluntzen ari da jada. Guardia aldaketaren ordua ere bada gailurretako elurraren azken distira okreak desagertzen ari diren bitartean...

**Biarnoko
landazabalaren
espiritu arina
lagun abiatuko
dugu bidea. Arina,
hori bai, soilik
paisaiari
dagokionez, iragan
gatazkatsu baten
berri emango
diguten herri eta
gotorleku ugari
baititugu zain**



CUSCOTIK TITICACARA

Altiplanoan, mugarik gabe berriz ere







Testua: **Urtzi URRUTIKOETXEA** Argazkiak: **U.U eta Getty Images**

**Mugak zabalduz doaz astiro-astiro
mundu zabalean, luzaroan oso
arruntak eta azken urte biotan
ezinezkoak izan diren txangoak eta
bidaiak ahalbidetuz berriz ere. Peru
eta Boliviaren artean banatutako
Altiplanoko txango historikoa,
esaterako, berriz ere eskueran dago,
Machu Picchu, Cusco zein Titicaca
izen magikoak lotzen dituen lerroari
bide eginez.**

Erreportajea zabaltzen, La Paz, Boliviako hiriburua, El Altotik ikusita. Hurrengo orrialdeetan, Titicaca aintzira, Puno hiria atzean ageri dela; Machu Picchu eta Cordillera Real mendikatea, 6.000 metrotik gorako mendiekin, Titicaca aintziratik ikusita. Lerroon ondoan: Copacabana, Boliviako muga ondoko hiri atsegina; kitxua emakumeak, Pisac-eko azokan, Cuscotik hurbil; eta uharte mugikorrak, Titicacako aintziran.





Kitxua eta aimara herrien bihotzean aspaldi ibili dira bidaiariak, eta berriz ere bueltan dira. Ezinbestean, inka inperio zaharraren hiriburu izandako Cusco da txangorako abiapuntu horietako gehienentzat. Lehen zatian, Machu Picchuraino joan eta berriz itzuli, zenbaitzuek egun bakarrean ere egiten dutena, nahiz eta, aukeran, patxadaz hartu eta bi guneez gain bideko altxorretan gelditu eta horiek guztiak ezagutzeko beta hartzeak ere merezi duen. Beste horrenbeste bigarren zatian, Titicaca aintziraraino eta Boliviako muga igarota.

Egin behar ez den eta gehienok egiten dugun eran iritsi gara Cuscora: Lima hiriburutik hegazkinez. Itsasertzean egotetik 3.400 metrora ordubete pasatxoan igarotzeak berehala astintzen du gorputza, gehiago ala gutxiago. Erritmoa jaitsi, arnasa sakon hartu eta patxadazko ibilaldia egin dugu inka inperioaren hiriburuan.

ALTUERA Koka-orriak eta karameluak eta beste dozena bat infusio eta aukera posible daude, baina altuera galtzea da ziur aski soroche-ari aurre egiteko erarik onena. Horixe bera da Machu Picchura joateak dakarrena: beti irudi menditsua ikusi ohi badugu ere, goi-lautada baino beherago dago gunea, oihanak eta basoak ere agertzen diren eremuan. Hainbat egunetako oinezko ibilaldia hartu ezean, trena da bertaratzeko modurik erraz, bizkor eta garestiena.

**Bai, noski, mila
aldiz ikusi dugu, ez
zaigu inori
agertuko lehen
aldiz, baina lilura
oso berezia sortzen
da Machu Picchu,
urratsez urrats,
begien aurrean
jartzean.
Perspektiba ere
aldatu egiten da
txoko bakoitzetik**

Aguas Calientes herrirainoko bideak paisaia-aldaketa horien guztien lekuko izatea ahalbidetzen digu: Cuscoko aldiriak eta gune urbano pobretuak, mendi-magaletan bizkor eraikitako milaka etxerekin hasiera batean. Gero, goi-lautada bere zabal eta handitasunean ageri da, altuera galdu artean; halako batean, haran eta arroilen artean doa burdinbidea, inguruan Andeetako tontor elurtuak miresten ditugula.

Aguas Calientesen, Urubamba ibaiaren haran estuan, ez da falta zereginik: jan, bidaiariekin topatu, erosketak egin, lekuari izena ematen dion terminuz gozatu... baina denak etorri dira funtsean leku berbera bisitatzea. Ordu eta erdi dago oinez Machu Picchura, autobusez ere egin daiteke bidea; zorionez, eguneko bisitari kopurua mugatuta dago –aurretiaz hartu behar sarrerak– eta horrek, turistaz betetako lekua izanda ere, nolabaiteko soseguz bisitatzeko aukera ematen du hain leku magikoa. Testimonio ofizialen arabera, 1911n “aurkitu” zuen inken hiri zaharra Hiram Bingham arkeologoak, mendeetan abandonatuta egon ostean... egiaz, ia hamarkada bat lehenago bertan izan zen Agustin Lizarra euskal jatorriko lur jabea, eta izena ere jarri zuen Hiru Leihoen Horman. Edozelan ere, Binghamen argazkiek famatu zuten lekua.

Bai, noski, mila aldiz ikusi dugu, ez zaigu inori agertuko lehen aldiz, baina lilura oso berezia sortzen da Machu Picchu, urratsez urrats, begien aurrean jartzean. Perspektiba ere aldatu egiten da txoko bakoitzetik, Urubambaren arroilen meandroi edo zuzenean basoei erreparatzean; harrietako xehe-tasunei edo turistez ezaxola bazkan diren bikuina ederrei begira gertatzen den legez. Orduak aurrera, autobus gehiago datoz baina gehiago dira doazenak; azkenek bestelako patxada batez gozatzeko beta dute, eta merezi du patxada horrek behin honaino helduta.

HARAN SAKRATUAN Pentsa liteke bi aukera baino ez daudela Machu Picchu bisitatu ondotik: Aguas Calientesen bertan geratu edo berriz ere trena hartu Cuscora. Gure kasuan, tenpluaren magaleko herria bisitatu ondotik, atzera ere trena hartu dugu, baina Ollantaytambo geratu gara. Hala, Cuscora itzultzeko bidean patxada hartu dugu, eskualdeko altxorrek la-saiago ezagutzeko.

Ollantaytambo bera da lehen altxorra, egunsentian eguzkia irten eta haranean sartu artean ematen duen denboran. Valle Sagrado edo Haran Sekretuak, beste mila txoko bikain ditu. Orain bai, Aguas Calientesen 2.000 metroraino beherantz egin ostean, astiro-astiro egiten den igoerak hobeto egokitzea ahalbidetzen du, berriz ere Cuscoko 3.399 metroetara iritsi aurretik, Pisac-eko terrazetan gora. Pachacutic enperadore inkak eraikitako eta ehun urte baino gutxiagora Pizarrok gidatutako espainiarrek txikitutako zitadela dago goian, haran guztiaren ikuspegi izugarria eskainiz.

Cuscorako azken tartea egin aurretik, Pisac-eko azoka bisitatzeko tarte bat hartzeak ere merezi du. Gero, bidea gorantz doa etengabe, Saqsayhuaman gotorlekuan inken hiriburua bere handitasunean ageri zaigun arte. Hala, Cuscon sartu baino lehen berriz ere perspektiba bihurtzen zaigu: Arma Plaza, Jesuiten Eliza edo San Pedro azokako teilatua bereizten ditugu, baina haran guztian hedatzen da hiria kilometro askotan.

Garaierara egokituta, txangoaren bigarren zatiak Titicaca aintziraraino garamatza. Autobusak egun osoa ematen du bidean (badira bidaia gauez egiten dutenak, baina asko da galtzen dutena), eta merezi du Punora bidean geldialdiak egitea ere, Wiracocharen tenplua edo Pukara konplexu arkeologikoa ezagutzeko, esaterako, edo La Rayan (4.335 metro), Andetako tontor elurtuak behatzeko.

AINTZIRAREN SEKRETUAK Titicaca aintzira bera Hego Amerikako laku handiena izateaz gain, munduko ur nabigagarriarik garaiena ere bada. Hala ere, lakua hain berezi egiten dutenak bertako uharteetan bizi diren pertsonak, herriak eta kulturak dira. Kitxua eta aimarekin batera, ezin uro edo uru herria ahaztu, eta Titicacan belaunaldiz belaunaldi kanaberez eraikitako uro uharteak. Aintzirara egindako bisita ohikoenetakoa da, gehiegi ere bai: asko dira doi-doi ordubeteko bisitaz kexu agertu izan direnak, nolabaiteko giza zooen antzera antolatuta dagoela salatuta. Eztabaida etiko zailak dira beti turismoak dakartzanak. Denbora izanda, uro herria Boli-
viako aldean, Desaguadero ibaiaren inguruan ezagutu liteke patxada handi-
diagoz, bazterrotako ikuspegi turistiko bizkorretik aparte; hizkuntzari eutsi dion komunitate bakarra da. Edozelan ere, Taquile uharteko ehun-
gintza eta herri dantza tradizionalak ere paregabeak dira.

Halaxe garamatza bideak berriz ere irekita dagoen mugaren beste aldera, Copacabana atsegineraino. Isla de la Luna eta Isla del Sol, Eguzkiaren eta Ilargiaren uharteak bisitatzeko abiapuntua izateaz gain, hirian bertan, aintzira ertzetik muinoraino, erraz asko joan litezke orduak eta egunak.

Koati edo kitxuaz, Killawat´a izena ere hartzen du Isla de la Luna uharteak; aldamenekoa baino nabarmen txikiagoa da eta nekazari eta arrantzale familia gutxi batzuk baino ez dira bertan bizi gaur, baina udaberriko lehen egunean, esaterako, inguruetako familiak bildu ohi dira jantzi dotorez ospakizunera. Iñac Uyo tenplua (Eguzkiaren Birjinen Jauregia) uhartean eraiki zuten inka inperioaren garaian, eta anfiteatro itxura du. Kondairaren arabera, Wiracochak hemen agindu zuen ilargia irtetea. Egiaz, aintzirako uretan txoko txiki honetaraino nabigatzea bera da lehen abentura.

Eguzkiaren uharterantz abiatzean, ekialdean harro jaikitzen diren Andee-
tako gailur elurtuek harrapatzen digute begirada. Urrunduz goaz, ia lau mila metroko altueran gu, sei milatik gora tontorrek, uhartera iristerako. Titicaca aintzirako uharterik handiena da, oso malkartsua eta bertako aimara eta kitxuek eraikitako terrazatan dago antolatuta. Santutegia izan zen inka inperioaren garaian, eta, irlaren izenak iradokitzen duenez, Inti edo Eguzki jainkoari eskainitako tenplua zegoen bertan. Yumaniko eskailerak ditugu iritsi eta berehala, irlako gunerik garaieneraino igotzeko; egokitzen eginda ere, altuera eta nekea erraz nabari dira ariketa txikiena egindakoan. Inka inperioaren sorreraren mitoa ere hemen kokatzen da, Manco Capac-en bidez: Inti/Eguzki jainkosaren semea da Manco Capac, eta irlaren iparraldean sortu zen; gero, Cusco fundatuko zuen. Uharte zirrargarria da eta, jende gehienak ez bezala, egun-pasa etorri ordez gaua ere bertan emanez gero, sekulako ilunabarrak gozatzeko aukera dago, bihar-
amunean La Paz hiribururantz abiatu aurretik bidaiari amaiera ezin hobe-
a emateko.

GIDA PRAKTIKOA

PREZIOAK

Sol du izena Peruko diruak, eta bolibiano Boliviakoak. Erraz trukatu daiteke mugan –adi trukeari, hobe aurretik begiratzea zelan dagoen egun horretako kotizazioa–. Oro har errazagoa da dolarrak izatea trukerako euroak baino; Cuscon, euroak ere truka litezke, eta ez da kutxazainik falta, baina hortik kanpo, hobe eskudirua prest izatea.

OSTATUA

Cuscon, Punon eta gainerako herri nagusietan prezio eta gustu gehienetarako ostatu eta hotelak daude, oso garestietatik xumeetara. Gainerakoan, badira esperientzia komunitario interesgarriak ere hainbat herritan, oro har bertako biztanleekin harreman zuzenagoa izatea ahalbidetzen duen bestelako ostatu mota batekin.

NOLA MUGITU


Aukera ugari dago hiri nagusien artean bidaiatzeko, izan autobus, furgoneta zein partekatutako taxi. Machu Picchuko kasuan, trena hartu behar da; garestia da eta aurretiaz ondo planifikatzea eskatzen du. Oro har, leku turistiko gehienetara izaten da garraioa, batzuetan Cuscoko eta bideko beste ostatu batzuek kudeatutakoa. Baita txangoak egin behar diren kasuetan ere, Titicacako uharteetara iristeko, esaterako.

Peña Oroel: erraza, erosoa eta ederra

Testua eta argazkiak: **Andoni URBISTONDO**



Mila aldiz ikusi eta behin ere igo ez. Horixe da Peña Oroel mendia (Uruel, aragoieraz) milaka euskaldunentzat. Jakako zaindari da, ia 1.800 metroko mendi puska, baina ondoan dozenaka ditu, garaiagoak, politagoak eta elurtsuagoak. Horiek neguaren preso daudenean, baina, aukera bikaina da Oroel: erraza, eroso eta ederra. Eta bista benetan ikusgarriak ditu.





Jaka eta Jazetaniako eskualdeak milaka euskal bisitari jasotzen ditu asteburuetan, festa-egun zubietan, eta udako oporretan. Jakako biztanleria boskoiztu egiten omen da halakoetan, asko baitira eskualde horretan etxeren bat duten euskaldunak. Pirinioetako Mendebaldeko zatiko hiriburua da Jaka. Eskia, mendia eta aisia eskaintzen ditu, ostalaritza zerbitzu onak, eta bada Euskal Herriko zortzigarren hiriburua deitzen dionik ere. Hango kale kantoietan oso ohikoa da jendea euskaraz entzutea opor-egunetan.

Jakatik gertu mendi puska itzelak daude: Aspe, Collarada, Bisaurin, Telera. Eski estazio franko ere bai: Astun eta Candanchu gertuen daudenak, baina Panticosa eta Formigal ere ordu erdi pasatxora. Mendi-eskia egiteko aukera ere aberatsa da bertako mendietan. Horren bila gutako asko joan izan gara Jakara, eta ez behin bakarrik, sarri baizik. Eta hara hurbildu garen aldiro ikusi dugu Jaka hegotik babesten duen mendi puska: Peña Oroel, Uruel aragoieraz, ia 1.800 metroko menditzarra.

Horixe egin dugu: ikusi, joan garen aldiro, baina igo, ia inoiz ez. Oroel Nafarroako Beriaín-en edo Gipuzkoako Ernioeren bikia da, antzekoak oso egituraz. Pirinioetako Beriaín esan geniezaioke Uruel haitzari, erratzeko



beldurrik gabe. Etzanda dagoen lehoi baten itxura du, eta bi isurialdeek bat egiten duten tokian halako bizkar edo atzealde luze eta zabala dauka. Mendi garaia da Oroel, ia 1.800 metrora goititzen dena, eta Pirinioak begiratzeko balkoi onenetakoa da, onena ez bada.

Bizitzako unerren batean beti irekitzen da leiho bat, eta apirileko elurteek ireki dute oraingoan. Pirinioetan elurra lodi bota du 2.000 metrotik gora Aste Santu aurreko egunetan. Apirileko elurra elur zaila da, gaiztoa, nekez izozten dena, eta horrek ikaragarri zailtzen du mendizaleen ibilera. Komeni da elurrez biluzik dauden beste mendi batzuk bisitatzea, eta Oroel da horietako bat. Oroel gazteleraz, Uruel aragoieraz. Punta Uruel, zehazki, Uruel izena mendikate osoarena baita. Lerro zuzenean Jakatik zazpi-zortzi kilometro eskasera dago, baina Jaka baino 1.000 metro gorago, ia-ia. Jazetania eskualdean Bisaurin handiak bakarrik du Uruel Puntak baino goragune handiagoa (inguruan edo gertu dagoen mendiarekiko aldea metroetan). Halere, oso igoera erraza da, goiz-pasa egiteko oso aproposa.

HIRU ORDUKO BUELTA Igoera Oroelgo atsedenlekutik, Paradoretik, hasten da. 50 autorentzako aparkalekua daukan toki ederra da, Punta Uruelgo ipar isurialdean. Pinu eta izei baso itxian barrena egiten du bideak, eroso,

**Mendi garaia da
Oroel, ia 1.800
metrora goititzen
dena, eta Pirinioak
begiratzeko balkoi
onenetakoa da,
onena ez bada.**



Erreportajea irekitzen, Peña Uruel mendiko azken gandorra. Luzexka da, baina oso eroso. Hurrengo orrialdeetan, tontorreko gurutzea, bederatzi metrokoa, eta gailurreko bista. Jaka herria ikusten da ederki, baita Pirinioetako gailur elurtuak ere; Collarada eta Aspe, besteak beste. Lerroon ondoan, Peña Uruelgo haiz ikusgarriak, izen bereko Paradoretik ikusita; Biarnoko mendizale talde bat, izei basoan gora, eta Oroel Paradorea, txangoaren hasiera, Peña Uruel gailurretik.

bihurguneari bihurgunea lotuz. 37 norabide aldaketa daude denera, eta horrek erakargarri egiten du igoera, ez baitago malkar handirik. Ordubete eskaseko bidean apenas dago argigunerik, bat edo bi, baina horietatik Jaka herria eta Pirinioak dotore agertzen dira.

Esan dugu Punta Uruel mendiak Beriainen tankera duela. Ñabardurekin. Uruel mendikatean basoak 1.700 metrora irauten du, mendiaren bizkarra harrapatzen den unera arte, hain zuzen ere. Beriain aldean mendi bizkarrera iritsi baino dezente lehenago bukatzen da basoa. Uruelen basoaren eta bizkarraren arteko lepoa oso goxoa da. Beriainen malda harritsu eta malkartsuak pasatu behar dira, basoa bukatzen denean, bizkarrera iristeko. Bizkarrera iritsita, mendia bere osotasunean agertzen zaio mendizaleari. 1.660 metrora gaude.

BEDERATZI METROKO GURUTZE ERRALDOIA Dozena bat kilometro luze da Uruel, ekialde-mendebalde, zati handiena 1.700 metroko langatik gertu. Belaze ederra dauka goialdean, baina tarte harritsuak ere sarri agertzen dira; batez ere, gailurretik gertu. Mendebaldera agertuko zaigu gailurra, lepotik kilometro pasatxora, baina argi nabarmentzen da puntu gorena non dagoen, Uruel Puntak bederatzi metroko gurutze erraldoia baitauka gailurrean. 1902an kokatu zuten bertan basozainek. Ordu eta erdi eskasean lortuko dugu Paradoretik gailurrerako tarte osatzea, oso martxa lasaian.

Gailurrean jende oldea dago. Agerikoa da mendizaleek Aste Santua baliatu dutela Jazetaniako mendi dotore hau igotzeko. Askok Biarno eskualdekoak



dira, Pirinioez iparrekoak. Gailurrean kontuz ibili behar da amildegiekin, sakonak baitira iparralderantz. 300 metroko hormatzarrak daude basoaren gainetik, eta bertigo pixka bat daukanak hobe du amildegira gehiegi ez hurbiltzea. Jaka herria oso ondo ikusten da, hatzekin ukitzeko moduan, eta Jakatik iparrera, mundu zuria.

PIRINIOAK IKUSTEKO BALKOI POLITENETAKOA Punta Uruel Pirinioak ikusteko balkoi politenetakoa izango da. Ez dauka itzalik egingo dion mendirik aurrean, eta Pirinioetako goi mendiak bere osotasunean ikusten dira. Hasi Bisaurin ezagunetik (2.668 metro), Aspe eta Collaradarekin jarraitu (inguruko garaiena, 2.883 metrorekin), eta Telera eta Tendeñera mendikateetaraino. Vignemale-ren beraren silueta antzematen da ondo, eta urrunean, Monte Perdido hiru haitz ezagunak ere bai: Cilindro, Perdido, eta Pico Anisclo edo Soum de Ramond. Elurra zuri-zuri dute mendi horiek guztiek, Aste Santua baino lehen elurra egin baitu 2.000 metrotik gora Pirinioetan.

Mundua, baina, ez da mendien ikuspegiarekin bukatzen, eta Jazetania bailarako zuloa, lautada, ere ikusgarria da, berde-berdea apirilean. Mendebaldera Cuculo mendia agertzen da, mendi ezaguna hau ere bailaran, San Juan de la Peña monasterio ezagunaren ondoan. Ekialdera, Guara mendikateko gailurrak agertzen dira, elur arrasto gutxi batzuekin. Guarako Tozal mendiak 2.097 metro ditu, eta Huesca hiriburutik 25 kilometro eskasera dago. Hori ere zehatz ezagutzeko moduko mendigunea da, baina beste ale batarako utziko dugu.

GIDA PRAKTIKOA

KOKAPENA

Oroel edo Punta Uruel Huescan dagoen mendia da, Jakaren hegoaldera. Pirinioaurreko mendikateetako bat da.

NOLA IRITSI

Jakara iristeko bidea oso erraza da. Iruñetik Pirinioetako autobidea hartu behar da Irunberri eta Esa aldera, eta handik ziztu batean Jakara irits daiteke. Ipar Euskal Herritik Somport gaina zeharkatzea da bide laburrena. Jakan, eta Nafarroa aldetik iritsiz gero, herrian sartu aurretik dagoen biribilgunean, Puerto de Oroel eta Bernues herrira daraman errepidea hartu behar da, eskuinera. Sei kilometro eginda, Oroel Paradorera joateko bidegurutzea dago; beste kilometro pare bat. Seinaleztapena oso argia da; ez dago galtzeko arriskurik.

EZAUGARRIAK

Uruel Beriainen tankera daukan mendikate luzea da, etzanda dagoen lehoi itxurakoa. Amildegia handiak ditu Jakarantz, mendebalde eta iparrera; etzanagoa da hegora eta ekialdera. Mendi handia da, tamainaz, eta garaieraz, gurutzea 1.770 metrora baitago. Goiz-pasa egiteko mendi aproposa da oso, eroso eta erraza, eta sekulako ikuspegia duena.

ITSASMUSEUM

Bizkaiko itsas tradizioan nabigatzeko aukera

Testua eta Argazkiak: **Eli TXAPARTEGI**

Irudimena erabiliz lehorrean itsasoratzeko aukera paregabea eskaintzen du Itsasmuseumek, aingura, itsasontzi, kate, mapa, upel eta garabi artean zeharkaldi historiko eta interesgarriaz gozatzeko parada berezia. Helmuga erakargarria da oso: Bizkaiaren eta itsasoaren arteko lotura estu eta emankorraren jatorria eta bilakaera gertutik ezagutzea. Eta, horretarako, nekez aurkituko zuten leku aproposagorik: Euskalduna ontziolak.



Bilboko itsasadarretik Bizkaiko golkoraino hedatzen den itsas historia eta kultura. Horixe da 27.000 metro koadroko eremuan Itsasmuseumek harroki gordetzen eta ezagutzera ematen duena. Eta, gainera, modu erraz, ludiko eta entretenigarrian, kokaleku estrategiko eta sinboliko batetik: Euskaldunako ontziola zaharrak. Ezaguna da Bizkaia, hiriburuak eta bizkaitarrek itsasoarekin izan duten harreman estua; baita lotura horrek historian zehar sortu dituen nortasun, ohitura eta tradizio bereziak ere. Eta, zalantzarik gabe, Itsasmuseum abiapuntu aparta da iraganera nabigatzen hasteko, hondoratzeko inolako arriskurik gabe.



CAROLA GARABIA Itsas abentura museoaren eraikinean sartu aurretik hasten da, kanpoaldeko zabalguneko kaietan zenbait harribitxi baitaude. Hantxe dago, adibidez, Carola garabia, gorri-gorria, 60 metroko garaiera txundigarriarekin, industria-iraganaren sinbolo eta museo-gunearen itsasargia, harro-harro bere izenaren inguruko istorio bitxiak: nonbait, Carola izeneko Deustuko emakume batek itsasadarra zeharkatzen zuen egunero, lanerako bidean, eta garabitik igarotzen zen bakoitzean ontziolako langileek lana eteten omen zuten, bat-batean, une batez hari begira gelditzeko.

Garabitik gertu, aingura, soka, kate astun eta zabalgunean estrategikoki sakabanatutako balio historiko eta artistikoko beste elementu batzuen artean, Bonba Etxea eta Euskaldunako antzinako dikeak daude, duela 150 urte baino gehiago eraikitakoak. Bertan ikus daitezke Itsasmuseumeko bildumako ontzi batzuk; besteak beste, “Portu” eta “Auntz” –XX. mende hasieran Euskaldunan eraikiak– eta “Antxustegi”, Euskal Herrian kontserbatu den bere tipologiako arrantza-ontzi tradizionalik zaharrena. Dikearen balioa paregabekoa da; arkitektura-pieza aberatsa da, egungo dike zibil zaharrenetakoa baita.

Museoaren kanpoko elementu horiek guztiak bisitaren parte dira, Erain proiektuarekin batera. Bizkaiko zurezko ontzigintzari lotutako ezagutzak zein tradizioak biltzea eta XX. mendeko Bizkaiko itsas zurgintza lanbidea berreskuratzea ditu helburu Erain-ek; hau da, garai hartako prozesu teknikoak zorrotasun zientifikoz transmititzea, ondoren dike lehorretan ontzien zaharberritze prozesuan egoki aplikatu ahal izateko.

Proiektuak zuzeneko tailer bat eta Bizkaiko ontziolen historia aztertzen duen erakusketa biltzen ditu, joan den mendeko tresnak, jarduerarekin lotutako lanbideak eta arrantza-ontziak garai berrietara egokitzeko izan duen bilakaera erakutsiz.

«ATYLA» ITSASONTZIA Kaian dago, halaber, Itsasmuseumeko pieza erakargarrienetakoa: “Atyla”, 1980 eta 1984. urte bitartean Lekeition eraikitako



ontzi ikusgarria. Irailetik ekainera bitartean dago ikusgai, uda partean Europan zehar nabigatzen ibiltzen baita, abentura zein formazio bidaiak eginenez, batez ere.

“BELAONTZI HANDIAK” Dena dela, “Atyla”-z gain, museoko “Belaontzi Handiak” egitasmoari esker, munduko beste belaontzi ikusgarriak ere izaten dira kaian urtean zehar. Ontzi historikoak dira, eta, gehienetan, bisita gidatuak eta askotariko ekitaldi eta jarduerak eskaintzen dituzte museoko arduradunek.

Behin kanpoaldean gozatu ondoren, barrualdeko harribitxiak ikusi ahal izango ditu bisitariak, sarrerako ate ondoko munduko bola handiaren ondotik igaro ostean. Bizkaiko itsas historia harilkatzen duten guneak zeharkatuz itsasontzi batean balego bezala nabigatuko du irudimenarekin.

Zeharkaldian aurkituko dituen altxorren artean, honako hauekin harrituko da gehien, seguru asko: Hendrick Doncker-ek egin omen zuen Bizkaiko golkoko XVII. mendeko mapa nautikoa, zenbait maketa –besteak beste, galeoi batena, “Alu Mendi” itsasontziarena eta Zubi Esekiarena– eta Bilboko Kotsuletzeko Falua, itsasadarrean zehar mugitzeko eta euren boterea erakusteko kotsuletzeko arduradunek erabiltzen zuten ontzia. Akaso, izango da itsas salbamenduaren jatorriari propio eskainitako txokoan ere bereziki gozatuko duenik.

SURFA, AZKEN NOBEDADEA Surfari ere eskaintzen dio museoak txoko berezi bat, zehazki, Euskal Herriko surfaren historia eta bilakaerari.

Lau azalpen-taula ez ezik, surfarekin zerikusia duten zenbait pieza adierazgarri daude ikusgai; besteak beste, itsas jarduerak Euskal Herrian izan duen garapenaren hiru une garrantzitsu sinbolizatzen duten beste hainbeste surf-taula, O’Neillen surf-jantzi bat eta “The Surf Riders of Hawaii” historiako lehen surf-liburuaren ale bat, Ignacio Aranak –1911tik 1914ra Hawaiiko kontsul izandakoa– Euskal Herrira ekarritakoa.

Itsasmuseumera sartzen denak Bizkaiko itsas historia harilkatzen duten guneak zeharkatuz itsasontzi batean balego bezala nabigatuko du irudimenarekin. Baina kanpoaldean ere gozatuko du, kate, upel, argazki, garabi eta itsasontzi artean.



“Bizitza”, Gervasio Sanchezen irudiak San Telmon

APIRILAK 1-EKAINAK 12

Gervasio Sanchez fotokazetariaren 41 irudirekin osatutako “Bizitza” erakusketa dago ikusgai San Telmo Museoeko Laborategian ekainaren 12ra arte. 1991 eta 2015 bitartean munduko zenbait gerratan egindako argazkiak biltzen ditu erakusketak, nagusiki, zuri beltzean.

Gerardo Mosquera komisarioak ikuspegi berri bat sartu nahi izan du erakusketan, Sanchezek sortutako irudien indar bisualean eta aberastasun komunikatiboan oinarrituta. «Izan ere, Sanchezen argazkiak kontatzen dituzten istorioetatik eta beraiekin lotutako gertakarien gaurkotasunetik harago interesatzen zaizkigu». Zalantzarik ez dago Sanchezen argazkiek unean uneko erreporta-

jeetatik haratagoko balioa dutela. «Egiten dituen argazkien berezko balio artistikoak eragin du Sanchezen obrak hainbeste erakusketa eta liburutan jasota egotea, edo andaluziarrak Espainiako Argazkilaritza Sari Nazionala jaso izana». Lortutakoa berak sortutako irudien berezko balioaren emaitza da, «unean uneko zirkunstantziak gorabehera. Jakina, zirkunstantziak ez dira ezabatuak izan: errepresentazioen semiosiaren oinarrian daude, barrutik eraginez eta indarra emanez».

Erakusketak Sanchez poeta eta artista nabarmentzen ditu. Lehen aldiz, hori bai, andaluziarraren argazkiak jatorrizko testuinguru eta denboraltasuna kontuan hartu gabe aurkeztu dituzte, «museografikoki koreografiatutako konstelazio batean oinarrituta irudien arteko erlazio orokorrak ezarriz».



FANT, fantasiarekin hitzordua Bilbon

MAIATZAK 6-14

FANT Bilboko Fantasiatzko Zinemaldia maiatzaren 6tik 14ra egingo da. Aurten bi protagonista izango ditu. Batetik, Nicholas Meyer zuzendari estatubatuarra eta,

bestetik, Esteban Ibarretxe bilbotarra. Lehenak jaialdiko sari nagusia jasoko du, eta, bigarrenak, berriz, herritarren omenaldia, “Solo se muere dos veces” film luzearen emanaldiarekin.

Guztira 47 saio eskainiko ditu jaialdiak eta nazioarteko gonbidatuak berreskuratuko ditu. Gainera, “Virus-32” lana estreinatuko da inaugurazio galan, Campos Eliseos antzokian. Bertan izango da Gustavo Hernandez zuzendaria.

Leioako XXII. Umore Azokan, 40 talde

MAIATZAK 19-22

Leioako XXII. Umore Azokan 40 konpainiak 90 ikuskizun eskainiko dituzte, antzoki gisa Bizkaiko udalerriko kaleak hartuta.

Urtero bezala, kalea sormenerako gune bihurtuko da askotariko diziplinen eskutik: dantza, zirkua, performancea, clowna... Horrez gain, aurten ere hitzaldiak, jardunaldiak, liburu aurkezpenak, “Umore Meetings” saioak, negozio bilerak eta bestelako ekitaldiak izango dira Leioan.

Herri Urratsen «Itzulera» Senperen

MAIATZAK 8

Pandemiaren ondorioz izandako bi urteko etenaldiaren ondoren, maiatzaren 8an Herri Urratsen 39. edizioa ospatuko da Senpereko lakuan.

Antolatzaileek “Itzulera” leloaren osagarri gisa 80ko hamarkadan baliaturiko sinboloa berreskuratu dute aurten, zapatila batekin irudikatu baitu Manex Erdozaintzi Etxart Kolegioko Amaia Ampo ikasleak Senpereko aintziran egiten den ikastolen aldeko hitzordua.


EUROPAKO ERREPIDEETAN, ASKATASUNEZ MUGITZEKO GIDA

Lonely Planet argitaletxeak Europako gida bat argitaratu du, bereziki bidaia lasaiak gustuko dituztenei zuzendutakoa; hau da, betiko errepideetatik kanpo ibiltzea atsegin duten bidaiariei eskainitakoa. Europako 41 ibilbide jasotzen ditu gidak, Frantzia, Ingalaterra, Irlanda, Espainia, Portugal, Alemania, Suitza eta Austriatik barrena.

Ibilbideen iraupenei dagokierik, askotariko proposamenak eskaintzen ditu, hiru eguneko ihesaldietatik hasi eta hiru asteko abentura luzeak arte. Gainera, 130 mapa, argazki ikusgarriak, helbide zehatz interesgarriak, bidaiari adituen aholku baliotsuak eta iradokizun inspiratzaileak biltzen ditu “En ruta por Europa” gidak, bidaiarien ihesaldiak errazte aldera.

En ruta por Europa
Zenbait autore

Lonely Planet, 2021
608 orrialde. Gaztelania





Cosquer

Urpeko haitzulo baten erreplika



«Historiaurreko gizakiak oso zoriontsu egongo lirateke gaur pintura horiek ikusita». Henri Cosquer urpekariaren hitzak dira. Berak aurkitu zituen 1985ean, Marseillako kostaldean, bere izena daraman historiaurreko kobazuloa. 37 metroko sakoneran dagoen eta 175 metro luze den tunel estu batetik igaro behar izan zuen haitzulora iristeko. Egun, Villa Méditerranée eraikinera joaten da sarritan, bertan artista eta langile talde bat ari baita erlojuaren kontra lanean Cosquer kobazuloaren erreplika garaiz bukatuta egon dadin.

Estalagmitak, estalaktitak, koloreak, argitasuna... baita tenperatura eta hezetasuna ere. Ahalik eta erreproduzio fidelena lortzeko, 33.000 eta 19.000 urte bitarteko jatorrizko haitzuloaren erreplikaz arduratzen den taldeak argazkiak zein hiru dimentsioko planoak ditu oinarri.

Burdina, hormigoia, argizaria eta pintura dira lan delikatuaren osagai nagusiak. Egunotan barrunbeko egitura bukatzen ari dira. Ez da kopia perfektua izango, haitzuloa murriztu eta lautu egin behar izan baitute Villa Méditerranée eraikineko espazio mugatuan sartu ahal izateko. Gainera, jatorrizko haitzuloaren azaleraren bosten bat baino ez da ezagutzen –guztira, 2.500 metro koadro ditu–, gainontzekoa urpean dagoelako.

37 METRORA Jatorrizko Cosquer haitzulatorako sarrera urpean dago, 37 metrora itsasoaren azpitik, Marseille eta Cassis artean. 2015etik, 800 kiloko altzairuzko ate batek barruko pintura paleolitikoak –500etik gora– babesten ditu. Adituek diotenez –besteak beste, Historiaurreko artean aditu Gilles Tosello–, Cosquer altxor iragankorra da oso, seguruenik XXI. mendearen amaierarako desagertuko dena. Profeziaren dramatismoa areagotu egiten da, gainera, kontuan hartzen bada Harri Aroko haitzulatorik originale netako bat eta munduan ezagutzen den labar-pinturadun itsaspeko bakarra dela.

Bitxia bada ere, Cro-Magnogo gizakiaren garaian, kobazuloa itsas mailatik 120 metrora zegoen, eta sarreratik 15 bat kilometrora zegoen kostaldea, baina, berotzearen eta glaziarren urtzearen ondorioz, urpean geratu zen duela 10.000 urte inguru, azken glaziazio-aroaren amaieraren ondoren.

Aurkikuntzaren ostean kobazuloa aztertu zuen lehena Jean Courti izan zen. Oraindik ere hun-

kitu egiten da haitzulora lehen aldiz jaistean sentitu zuena gogoratzean. 1991n izan zen, eta berak beti aitortu izan du 175 metroko tunel estu hartan ez zuela, ez, plazerik sentitu. Sarbidea oso arriskutsua da. Adibidez, 1991n, hiru gizon hil ziren urpeko altxorrera iritsi nahian.

Gilles Tosello artista eta historialaria kobazuloko labar-artea erreproduzitzen duen taldearen arduradunetako bat da. Zehaztasun milimetrikoz egiten dute lan altzairuzko eta erretxina akrilikozko arroken kopien gainean, hiru dimentsioko eredu batetik abiatuta.

LABAR-ESKUAK ERE BAI Harri Aroko pinturen artean, alka erraldoiaren (*Pinguinus impennis*) irudiak dira azpimarragarrienak; baita itsas lehoi, zaldi, bisonte, ahuntz, uro eta dozenaka labar-eskurenak ere. Dirudienez, historiaurreko artistek eskua horman jarri eta pinturaz margotzen zuten harkaitza, arrasto gorri eta beltzak sortuz. Egia esan, eskuetako irudiak ohikoak dira arte paleolitikoan, baina, aldiz, ez da ohikoa falangeen bi heren falta izatea, Cosquer kobazuloan gertatzen den bezala. Sexu eszenak eta “Eraildako Gizona” ere deigarriak dira. Izen horrekin bataiatu zuten Courtinek berak eta Jean Clottesek gezi batez zeharkatutako gizonezko baten irudia.

IBILGAILU NABIGAGARRIAK Bisitariak ibilgailu nabigagarri batetik ikusi ahal izango dituzte kobazuloko harribitxien erreproduzioak, aurkitu zuenean Cosquer berak deskribatutako atmosfera ahalik eta sinesgarriena izan dadin.

Gainera, interpretazio-gune bat atonduko dute, non erakusketa iraunkor interesgarria eskainiko den historiaurrearen zein Glaziar Aroaren ondorengo itsas mailaren gorakadaren inguruan.

Azkenean, urrian zabalduko dela aurrekusten dute, hasiera batean zabaltze ekitaldia ekainerako iragarri bazuten ere.



Artista eta langile talde bat erlojuaren kontra ari da lanean Villa Méditerranée eraikinean, Cosquer kobazuloaren erreplika garaiz bukatuta egon dadin.





«AUZOLANA» MALIKO KOMOGEL MESKITAN

Urtero bezala, Maliko Mopti herriko eta inguruetako biztanleak denon artean Komogel Meskita Handiko hormak luzitzeko eta txukuntzeko elkartu dira. Horretarako, putzu batetik jasotako lokatza erabiltzen dute. Urtero-urtero elkartzen dira, negua iritsi baino lehentxeago, 1936tik.

Lokatzez egindako meskita 1908an hasi ziren eraikitzen eta Unescok gizateriaren ondare izendatu zuen 2009an.

Eraikin estalia, patioa eta 2-3 metroko horma babesleak ditu. Niger ibaiaren barneko deltako merkataritza guneko historikoan kokatuta, ikur kultural eta turistiko bihurtu da Komogel. OUSMANE MAKAVELI

DUELA MILA URTEKO MATERIAL KIRURGIKOAK

Peruko Sicango Museo Nazionalean, duela mila urte inguru urrezko maskara batekin lurperatu zuten zirujau baten hilobian arkeologoek aurkitutako materiala dago ikusgai.

Las Ventanas tenplu mausoleoan aurkitu zuten, zehazki, Bosque de Pomac santutegi historikoan, Lambayeque eskualdean.

Arkeologoek diotenez, giza garezuraren kirurgian erabilitako tresnak dira aurkitutakoak eta, dirudienez, badute parekotasunik Pracas kulturako hilobietan topatutakoekin. Nonbait, haiek ere trepanazioak egingen zituzten. ICAN MUSEOA



ERLAUNTZA KOLEKTIBOA, ARRISKUAN

Marokoko Inzerki herria harro egon da beti munduko erlauntza kolektiborik zaharrena eta handiena duelako, baina azkenaldiotan herritarrek kezkatuta daude, udaberri garaia izan arren, ez delako erle-burrunbarik entzuten. Nonbait, leortearen eraginez, erleak hiltzen ari dira.

Afrika iparraldeko erresuma polinizatzaile kritikoen hilkortasun masiboa jasaten ari da; “kolonien kolapsoaren desordena” fenomeno dago horren atzean.

Adituen arabera, erleen bat-bateko heriotza masiboak naturaren suntsipenaren eta pestiziden erabilera neurrigabearen ondorio dira. FADEL SENNA



GOLDFISH ZAPATAK, ZINEMA PANTAILATIK MUSEORA

Ruth E. Carter jantzi diseinatzaileak “I’m Gonna Git You Sucka” filmerako propio sortutako Goldfish zapatak daude ikusgai Virginiako (AEB) Roanoke hiriko Taubman Arte Museoan, “Ruth E. Carter: Afrofuturism in Costume Design” erakusketan. Jantzien Diseinu Onenaren Oscar saria irabazi zuen lehen afroamerikarra izan zen Carter. 2019an jaso zuen saria. AGNES BUN



BERLINGO FRUIT LOGISTICA AZOKA

Berlingo Fruit Logistica azokak itxura gustagarria duten barrazki eta frutak erakutsi ditu, beste behin ere. Topaketaren helburua produktu freskoen negozioarekin zerikusia duten hainbat sektore espazio berean biltzea da, eta, bidenabar, nazioarteko hornidura kateko azken berrikuntzen eta zerbitzuen inguruko informazioa eskaintzea. TOBIAS SCHWARZ




HONG KONGEKO VICTORIA PORTUAN, LASAITASUN BILA

Hong Kongeko Victoria portua hiritik lasaitasun bila ihesi doazenen topaleku atsegin bihurtu da azkenaldion. Gero eta jende gehiago hurbiltzen da bertara lasaitasun bila, batez ere paseatzera eta lagun edo senitartekoekin une atseginak partekatzerako. Egunezko azken orduetan biltzen da jende gehien bertan. DALE DE LA REY



KALIFORNIAN, BASAMORTUA BASAMORTUAGO

Planeta jasaten ari den klima aldaketaren ondorio larriak argi ikusten dira azkenaldion Anza-Borrego Basamortuko Parkean, Borrego Springs herritik gertu, Kalifornian (AEB). Azken ikerketa zientifikoen arabera, bertako landaredia nabarmen –zehazki, %40 inguru– murriztu da 1984 eta 2017 bitartean. MARIO TAMA



DARWINEN “BIZITZAREN ZUHAITZAREN” ZIRRIBORROA

Cambridgeko Unibertsitateko liburutegiak 21 urtez desagertuta egon diren Charles Darwinen koadernoetako bat berreskuratu du, zeinean “Bizitzaren zuhaitzaren” zirriborroa agertzen den.

Dirudienez, pertsona anonimo batek utzi zituen dokumentu baliotsuak liburutegiko gune publiko batean, opari-poltsa arrosa baten barruan.

Ohar bat ere utzi omen zuen, liburuzainari Aste Santu zoriontsuak igaro ditzala opatuz. Albistea, noski, pozarren hartu dute unibertsitatean. STUART ROBERTS



NAKAGIN CAPSULE TOWER ENBLETATIKOA ERAITSI TA

Nakagin kapsula-dorre enblematikoa, 1970eko hamarkadaren hasieran Tokion eraikitakoa, eraitsi berri dute. Gerraostean Japonian sortutako Metabolismo arkitektura mugimendu eraldatzailearen erreferente ezaguna zen deuseztatutako eraikina. Bai barrualdea bai fatxada deigarriak ziren oso. CHRISTOF STACHE



“HORIZANS: THE ART OF BURNING MAN”

Adrian Landon artistak “Wings of Glory” izeneko artelana du erakusgai “Horizans: The Art of Burning Man” erakusketan, Chatsworth Houseko lurretan, Ingalaterra iparraldean. Tamaina handiko hamabi eskultura ikusgarri osatutako erakusketa da, urriaren lera arte zabalik egongo dena. OLI SCARFF



KARL LAGERFELD, COCA-COLA BOTILA BATEAN

“Karl Lagerfeld’s Legacy Part III” du izenburu Alemania hegoaldeko Munich hiriko Sotheby’s galeriak maiatzaren egingo duen enkanteak. Moda diseinatzaile eta argazkilari alemaniarren zenbait objektu izango dira salgai, besteak beste, artista ezagunaren silueta grabatuta duen Coca-Cola botila. CHRISTOF STACHE

**Lurralde
berrietara
goaz**

bidaiari

Hilabetero zure kioskoan **naiz:**-en bidaia aldizkaria euskaraz